

KOSTUEN EGITURA

Proiektu bat aurrera eramateko kostu asko zehaztu behar dira. Kostu mota desberdinak egon arren, gure enpresetan kostu finkoak eta aldagarriak zehaztu behar dira.

Kostu finkoak, oraingoz, gure lokala zabaltzeko lekua izateaz gain, webgunearen hostinga kostu finkoak izango dira.

Lokala izatearen gastua finkoa da, lokal bat alokatuko dugu eta hori kosturik handiena izango da. Gainera lokalari dagokionez, elektrizitatea eta ura ere, kontratuaren arabera, ordaindu beharko da eta horrek beste kostu batzuk gehitzen ditu.

Finkoekin bukatzeko, lokaleko langileen soldatak daude. Bakoitzak bere soldata izan beharko du eta hori kontratuaren arabera zehaztuko da pertsona bakoitzarekin.

Webgune bat zabaltzeko, informazio guztia web-testu legalen bidez eman behar da. Testu horiek beren orrialde edo atalean egon behar dute, erraz aurkitzeko modukoak eta web-orriko edozein puntutatik iristeko modukoak izan behar dute, eta hizkuntza argi eta ulergarrian idatzita egon behar dute.

Hiru lizentzia digital mota bereizten dira: Copyright, Copyleft eta Creative Commons. Horietako bakoitzak egile-eskubideen aurrean babes-maila bat ezartzen du, eta, beraz, eduki horien erabilerari eragiten dio.

1. Estrategia eta helburuak

Zure enpresari buruzko informazioa emateko atal batzuk baino ez izatea nahi baduzu, ez du izango orrialde baten kostu bera, bisitariak zure plataformatik erosketak eta transakzioak egin ahal izateko. Gure kasuan, ez da erosketarik edo transakziorik egongo, gure proiektuan aurki daitekeenari buruzko informazioa baino ez dugu emango.

2. Webgunearen diseinua

Kostu handia edo txikia zure orriarekin transmititu nahi duzunaren arabera izango da. Hala ere, gure web orria osagai hauek osatzen dute:

- Animazioak.
- Ikono edo grafiko pertsonalizatuak.
- Bereizmen handiko irudiak.

3. Eginkizunak

Webgunearen funtzioak zenbat eta konplexuagoak izan, orduan eta garestiagoa izango da prezioa. Horrek aparteko aldaketak dakartza, hala nola saio-hasierako orriak, pasahitzak eta horien kostua nabarmen handitu dezaketen beste elementu batzuk. Gure kasuan, web-orria publiko guztiari irekiko zaio, eta ez erregistrorik edo pasahitzik beharko.

4. Atal kopurua

Zure tokiak zenbat eta atal gehiago izan, orduan eta aldaketa edo ahalegin handiagoak egin beharko dituzu eraikitzeko. Webguneak, nahiko sekzio izango ditu, ekintzak eta enpresarri buruzko informazio guztia azaltzeko. Hala ere, momentu honetan egingo diren ekintza guztiak berdinak izango dira, baina gerta daiteke hilabtetetan aldatzea.

Beste aldetik, kostu aldagarriak, ekintzetan erabiliko den materiala; buztina, margoak eta abarrekoa. Ekintza bakoitzean erabiliko ditugun material desberdinak gure enpresaren dirutik ordainduko dira, hau da, bezeroak ez dute ezer ordaindu edo ekarri behar materialari dagokionez. Material hauek horrelako materiala saltzen duten edozein dendetan aurkitu ahal izango dira eta guk horrelakoetan erosiko ditugu.

Horrez gain, bestelako ekintzak ere baditugu, kontzertuak eta hitzaldiak zehazki. Hau egitera datozen pertsona edo taldeei ere ordaindu egin behar zaie, beraz hemen beste kostu aldagarri batzuk daude. Aldagarri esaterakoan, horretara datorren pertsona bakoitzak bere prezio edo diru kantitatea izaten du eta horrekin jolastu beharko dugu etorri ahal izateko.

Ekintzez gain, taberna munduan ere lan egiten dugunez honek beste kostu batzuk eragiten ditu. Hor eskeiniko ditugun elikagai eta edariak kostu handia izango dute, nahiz eta salmenten araberekoa izan. Hala ere, badaude almazen handiak non taberna edo hosteleriari zuzenduta dauden eta prezioak beste edozein dendatan edo tabernatan baino baxuagoak diren, beraz horrelakoetan erosten saiatuko gara, nahiz eta batzuk ezin izango ditugun.

Hala ere, kostu aldagarri guzti hauek duten salmenta-bolumenaren araberekoa izango dira; hau da, ekintzetara bezero kopuruaren araberekoa material gehiago edo gutxiagoko kostua izango da. Hasiara batean, ezjakintasunean kostuak handiagoak izan daitezke baina gero salmentak ikusiz eta proiektua aurrera nola duen ikusita gehiago moldatu ahal izango gara.